


DIFERENTZIAK

Joxe Azurmendi

Komunistek ez dute Nafarroa Euskal Herrian sartzen. Gauza bat da Euskal Herria, besterik Nafarroa. Baina ez dute egiten hori Nafarroarekin bakarrik. Dolores Ibarrurik idatzi ditu hitzok: «Existen problemas muy específicos como los de Navarra, Valencia, Baleares y Canarias...». Hor, bistan da, beti ahulenen eta gaixoenen alde dagoen eta minoriak indartzearren berebiziko ahaleginak beti egin dituen Alderdi baten politika agiri da, zeren-
ta «a nadie... puede extrañar que sea el PCE el más consecuente defensor del derecho de las nacionalidades a la autodeterminación». Espainia babestu

rroa berriz ere Euskal Herri osoko erakunde eta ekintza politikoei sendo lotzera begira. Behar diren kontzesio guziaz egin beharra dago hortan. Euskal Herria Nafarroa gabe, Bizkaia Gernika gabe haina da.

Ez da hori diferentzia bakarra Euskal Herrian. Era askotakoak dira. Joan den berrogei urte hauetan, Euskal Herriaren batasun bizitzak asko sofritu du. Kraskaturik dago euskal batasuna. Urolaldean ebidentzia garbiak diren gauzak, bitxi aurkitzen ditu Araba Errioxako entzuleak. **Foruak** aipatu eta bihotza bero-berotzen zaion guti dateke Barakaldon. Baina Herriberrin, moskor-



beharra dago, nafar eskualde eder hori harrapatu nahi dion euskal inperialistotik, lehen ere hainbat lurralde eta eskubide eta ondasun harrapatu izan dion moduan... nola ez, ba!

Ez ditugu eztabaidatuko hemen ikuspideok. Euskal Herrian sartzen dugunontzat ere, ordea, errealtate bat da Nafarroaren anitz eratako «orijinaltasuna». Eta guretzat ez da aski, Nafarroa Euskal Herri dela, esan eta esan aritzea. Ez dela eta ez dela, norbait aritzeak, gauzak aldatuko ez dituen moduan.

Euskal Herri guzira Alderdi izan nahi duenak, Nafarroarako Alderdi nola izan litekeen begiratu behar du. Nafarroan inolaz zabaldu ahal ezinezko tankera hartzen duen Alderdia, funtsean Nafarroa Euskal Herri ez dela, esaten ari da, hitzez ez bada obraz. Obraz erakutsi behar bait da, ez papez eta erudizio historikoz, Nafarroa Euskal Herri dugula. Arretarik haundiena ere guti izango da, Nafa-

tzen den edozein, **Viva los Fueros**-ka hasten da. Behinolako Diputazioak bizi-bizi zedukan Araban euskal kontzientzia. Aspaldian ez da gehiegi saiatu. Eta abar.

Desarrollo soziala dagoen bezalaxe, ia berez bezala, desarrollo politiko bat ere bada, nahiz-eta jendea bizitza politikotik apropos baztertuta eduki. Bilbok eta Gasteizek desarrollo sozial eta ekonomiko franko desberdinak egin badituzte urteotan, edozeinek esango du, gogoan hartu behar dela hori. Desarrollo politikoan ez dago alde gutiagorik Bizkaiko ibarretatik Arabako lautadara. Eta ez abiada desberdinean desarrolloa direlako bakarrik (mendetako aldea sumatzen da!). Kontzientzia galtzen delako ere bai, ez desarrolloa-tzeaz edo guti desarrolloa-tzeaz beste. Atzeraka ere bada desarrolloa. Euskal Herrian nahikoa egin dugun desarrolloa.

Diferentzia guziori jaramon egin nahi dien Alderdia, kasu egin nahi diena,

ekilibrio zailak egin beharrean aurkituko da. Baina masa Alderdi Sozialista bat horri denari kontu egin beharrean da nahitaez.

Inola ere ezin egin duena, berriz, hauxe da: euskaldunak, eskualde desberdinok, orain baino ere gehiago elkarrengandik arrotzuko dituen programarik bururatzea.

Honela asmatzen diren formulak ez dira inoren «gustokoak». Komenentzien arabekoak dira, diferentziei begira, kontzesio askorekin, nolabait konponduta. Goiherriarrari gutiegi irudituko zaio, beharbada. Baina pentsa beza, Tafallakoari ez ote zaion gehiegi irudituko. Goiherri ez bait da Euskal Herri osoa.

Lehen une batetan, lehen pausoak eman behar. Eta lehen-lehenengo pausoak guziok elkartze aldera eman behar ditugu.

“RADIO LIBERTY” ETA GALDERA XINPLE BATZUK

—«Liberty», amerikarrez: askatasuna da; eta «Radio», badakizu noski zer den!

—Ez litzateke besterik faltako!

—Horregatik, «Radio Liberty» inglez esatea polita da; baina politena, hau bera errusieraz, polakeraz eta txekerez esatea da.

—Zergatik hori?

—A! Errusitar, poloniar eta txekotarrei ere askatasuna zer den erakustea polita delako.

—Arrazoi duzu hortan.

—Eta polita den guzia bezala, bada-kizu, garesti...

—Garesti?

—Prezio honen gora-behera honetxegatik ari da ba David Abshire amerikarra Espainiako gobernuarekin izketan!

—Espainian, zergatik?

—Ez duzu ezer irakurtzen, gizona; irrati hau Catalunya-ko Pals errian, Geronan, jarria delako.

—Orduan, Catalunya-rako katalanez egiteko ere balloko die.

—Ez, katalanez ez!

—Eta euskaraz?

—Ez ahal dakizu euskara ere ez dela internazionalki eramaten den gauza?

—Gaztelaniaz bai behintzat...!

—Denak kale egiten dituzu, gizona...! Ezta ere!

—Alajaina, errusitar eta sortaldeko beste erri hoiak badute suerterik ezta?

—Eta ara zergatik suerte hau garesti den. Nola utziko diete ba, hemen, amerikarrei Geronatik gorriei bialtzen dien «Liberty» hau, zergarik kobratu gabe nolanahi debalde saltzen?

MARTIN UGALDE